Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

EUSKARAREN HIRIA DONOSTIA

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus – www.donostia.eus
20003 Donostia

659
In
IX
201
2-
03

XVIII. DONOSTIA ANTZERKI SARIA

2017. urtean Donostian emango diren euskarazko antzezlanak

Epaimahaia osatzeko publikoaren ordezkaria aukeratzea

Donostia Kulturak eta Donostiako Euskara Zerbitzuak antolatzen dute Donostia Antzerki Saria, euskarazko antzerki profesionala sustatzeko eta indartzeko asmoz. Urtero, martxoaren 27an, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean antolatzen den ekitaldian ematen zaio saria aurreko urtean Donostian eskainitako euskarazko antzerki lan onenari. Talde irabazleak 10.000 euro jasoko ditu, 8.000 euro egun horretan bertan, eta gainerakoa jasotzeko, bi urteko epean Donostian inoiz eskaini ez den euskarazko antzerki lan bat aurkeztu beharko du.

Epaimahaia horrela osatzen da:

- EAB Euskal Aktoreen Batasuneko ordezkari bat
- EHAZE Antzerkizale Elkarteko ordezkari bat
- AISGEko ordezkari bat
- EKEko ordezkari bat
- Antzerki kritiko bat
- Antzerki eremuko pertsona bat
- **Publikoaren ordezkaritza (gehienez 2)**

Publikoaren ordezkaria aukeratzeko BALDINTZAK

- 2017/01/01erako 18 urte beteak izatea.
- Donostiarra izatea.
- Euskara jakitea.
- Antzerkia gustoko izatea.
- Epaimahaikideek ez dute inolako partaidetzarik edota harreman zuzenik izango sarian parte hartuko duten ikuskizunekin edota konpainiekin.

Epaimahaikideen BETE BEHARRAK

- Donostia Kulturak eta Euskara Zerbitzuak elkarlanean antolatutako XVIII. Donostia Antzerki Sariko **lanak ikusi 2017 urte osoan zehar** (gutxi gora behera 10-15 saio). Lan hauek Donostiako Antzokiren batean edo Kultur Etxeren batean emango dira. Gutxienez 2 emanaldiren eskaintza egoten da obra bakoitzeko. Emanaldi horien berri Euskara Zerbitzutik jasoko du eta bi gonbidapen izango ditu bere izenean dagokion txarteldegian erabakitzen duen emanaldi egunerako.

- Antzezlan guztiak ikusten saiatu beharko du, eta ikusitako lanen balorazio egin eta gorde.

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus – www.donostia.eus
20003 Donostia

- 2018ko urtarrila-otsaila aldera gainerako epaimahaiarekin bildu eta aurkeztutako lanen artean bozkatu. Saio honek 2-3 ordu iraun dezake.

Epaimahaikide izateagatik **ABANTAILAK**:

- 2017. urtean zehar Donostian euskaraz programatzen den antzerkia ikusteko bi sarrera

- 2018ko martxoaren 27an, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, XVIII. Antzerki Sariko sari-emate ekitaldirako bi sarrera.
- 2018 urtean zehar (epaimahaiko lana utzi ondoren) Donostian euskaraz programatzen den antzerkia ikusteko bi sarrera

IZENA EMATEA

Izena emateko epea

2016ko azaroaren 28 arte
Izena ematea on-line egingo da helbide elektronikoan:
www.donostiaeuskaraz.eus

Azaroaren 30ean zozketa egingo da eta momentu horretan izena eman duten guztiek, Webgunean, epaimahaian parte hartzeko aukera duten ala itxarote-zerrendan aurkitzen diren ikusi ahal izango dute.

Hamar eguneko epea egongo da parte hartzea baieztatzeko, bestela itxarote-zerrendatako pertsonei emango zaie aukera. Aplikazio informatikoaren bitartez, pertsona bakoitzaren egoera kontsultatu ahal izango da uneoro.

Hautatutako ordezkaria berriro ere Donostia Antzerki Sariko epaimahaikide izateko hiru urte pasa beharko dute. Hau da, 2020 arte ezingo du epaimahaikide izan.

Epaimahaiko kide moduan parte hartzeko konpromisoak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar.

659
In
IX
201
2-
03